



Desengainua

1

Begiratu Emoziotegiko 76-77. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

- Nondik uste duzu datorrela azeria?

- Zer asmo zuen?

- Zer aurkitu du bere helmugara iritsi denean?

- Pentsatua zuena egin dezake? Zergatik?

2

Idatzi zure ustez zer ari den pentsatzen Emoziotegiko 76-77. orrialdeetako irudiko azeria une honetan.



3

Irakurri Emoziotegiko 76. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Desengainua sentsazio atsegin bat da.
- Desengainua uste zenuen zerbait betetzen ez denean gertatzen da.
- Desengainua espero genuena betetzen denean gertatzen da.
- Erraza da desengainurik izan gabe bizitzea.
- Orain, zuzendu esaldi okerrak.

4

Zertan datoz bat sorpresa eta **desengainua**? Idatzi.

5


Zer esan nahi du **desagertzeak**? Azpimarratu esanahi bera duten hitzak.

suntsitu irauten erori galdu ezkutatu

- Markatu **desagertu** hitza zuzen erabili den esaldia.
- Asteburuan hondartzara joateko nuen ilusioa berehala desagertu zen euria iragarri zutela ikusi nuenean.
- Denbora desagertu egiten da garaiz ibili ezean.

6 Zerk sentiarazten gaitu gaizki **desengainua** sentitzen dugunean? Erantzun.

7 Multzo bakoitzean **desengainuaren** osagai bat dago. Inguratu.



8 Orain, adierazi zergatik sentitzen den desengainatua Emoziotegiko 76-77. orrialdeetako azeria, eta adierazi haren **desengainuaren** bi osagaiak.

- 9 Eskatu ondo ezagutzen zaituen pertsona heldu bati desengainu handia eragin dizuten bi gauza kontatu diezazkizula. Osatu fitxa bat pasadizo bakoitzarentzat.

1. desengainua	
Zer uste nuen nik hasieran?	
Nola jakin nuen egia?	
Zer erreakzio izan nuen?	
Zer ikasi nuen desengainu hartaz?	

2. desengainua	
Zer uste nuen nik hasieran?	
Nola jakin nuen egia?	
Zer erreakzio izan nuen?	
Zer ikasi nuen desengainu hartaz?	

10

76-77. orrialdeetako azeriak **desengainua** izan du egin nahi zuena egiterik izan ez duelako. Zer egin dezake orain? Eman iezazkiozu ordezeko aukerak.

11

76-77. orrialdeetan erakusten den egoeran, azeria ez da egoera horren eragina jasan duen bakarra. Erantzun.

● Nork gehiago jasan ditu ur faltaren ondorioak?

● Norentzat da larriagoa egoera? Zergatik?

● Azeriak ezer egin al dezake igelei laguntzeko? Zer?

● Zer ikas dezake azeriak egoera horretatik?
